JAR ITZAZU PUNTUAZIO MARKAK TESTUOTAN:



JAKI TRANSGENIKOAK

Gaur egun, izakien informazio genetikoa aldatuz organismo berriak sortzeko gauza da ingeniaritza genetikoa. Ez da kontu berria, aspaldikoa bazik: betidanik egin dira horrelakoak, bai landareetan bai animaliengan, baina halakoetan prozedura biologikoak erabili ziren arraza edo espezie berriak sortzeko, hau da, naturak berak onartzen zituen bideak erabiliz eta, beti ere, ugalketan oinarrituta.

Ingeniaritza genetikoan, ordea, izakia bere baitan aldatzen da, bere informazio genetikoa manipulatzen da, beste izaki ezberdin bat lortzeko; eta, zer esanik ez, honek mesfidantza handia eragin du gizartean.

Izan ere, naturak ezarritako arauak betez lortzen dena bidezkoa dela pentsatu ohi da; eta, beraz, ezusterik gabeko emaitza emango duela, hain zuzen ere, urte askotako eskarmentuan oinarritzen delako. Geneak aldatzen direnean, berriz, naturaren beraren arauak aldatzen omen dira eta, beraz, arau berri horiek emango duten emaitza zalantzazkoa da, ezezaguna; hortik, mesfidantza. Modu natural baten bidez eraldatutako sagarra lasai asko jango dugu, baina ez transgenikoa, genetikoki aldatuta, alegia.

Europar Batasunean, 2004 urtetik, beharrezkoa da etiketa baten bidez jakia transgenikoa dela esatea. Halaber, produktu bat egiteko osagai transgenikoren bat erabili bada, horren berri ere eman behar da etiketan.

Gainera, Europar Batasunak bi jaki transgeniko besterik ez du saltzen uzten: artoa eta soja. Saltzekotan, etiketak honako mezua eraman behar du: “Genetikoki itxuraldatuta”. Osagai hauetaz egindako produktuetan ere antzeko mezua jarri behar da: “Genetikoki itxuraldatutako sojarekin/artoarekin egina”. Arazoa, beraz, kontsumitzaileen esku dagoela esan liteke, baina kontua ez da hain erraza: osagai hauek eta hauetaz egindakoak batez ere Estatu Batuetatik ekartzen dira, eta hango arauak ez dira Europakoak bezain zorrotzak.

Beste arazo bat “bigarren belaunaldiko” jakiak dira. Gerta daiteke behi batek osagai transgenikoa duen pentsua jatea, edo oilo batek; kasu honetan, “bigarren belaunaldiko” jakiak dira haragia, esnea eta arrautzak; baina pentsua da transgenikoa, ez behi horren haragia edo esnea, ezta oiloaren arrautzak ere. Horregatik, produktu hauen etiketetan ez da beharrezkoa inolako oharrik jartzea. Jakina, “behi eroak” gogoratzea nahikoa izan daiteke lasai ez egoteko.

Azkenik, jatetxeak ditugu. Legeak ez ditu jatetxeak behartzen janariaren etiketak erakustera; eta, beraz, jakin gabe jaki transgenikoak zerbitza diezazkigukete.

Zientzia.net